# MEMORIA

_oroimenari eta haren galerari buruzko
antzezlan dokumentala

Itziar Manero






*"Etorri, ama, hitz egin dezagun,*
*gauez, basoan gertatzen denari buruz,*
*gauez, bihotzean gertatzen denari buruz,*
*zerua, eta senarrak, kiskaltzen dituzten tximistei buruz.*

*Etorri, ama, abestu dezagun,*
*negarra arintzeko melodiaren bat,*
*poza sendotzeko doinuren bat,*
*edo koplaren bat, hildakoek ere dantza dezaten."*

*IRENE SOLÀ*

# _LABURPENA

MEMORIA oroimenari eta haren galerari buruzko antzezlan bat da. Amona baten memoria erregistratzeko saiakera bat. Gaixotasunaren eta denboraren aurkako partida bat.

MEMORIA amona baten eta biloba baten arteko topaketa bat da baita ere. Elkarri galderak egiteko, elkar ezagutzeko, zaintzeko eta agur esateko ahalegin bat, amonaren oroitzapenak desagertu baino lehen.

Zer gertatzen da persona baten memoria galtzen denean? Nora doaz haren oroitzapenak? Zerekin geratzen gara ondorengoak?






*"Gizakion garuna zelulez osatutako baso handi eta konplexu bat dela esaten dute"*

*"Nik nire amona baso bihurtu nahi nuen eta nire amonak ez du lorategitik atera nahi"*

# _FITXA ARTISTIKOA

sorkuntza eta zuzendaritza______________________ ITZIAR MANERO

antzezlea_____________________________________ ITZIAR MANERO

ekoizpena_____________________________________ ITZIAR MANERO

sorkuntza eta zuzendaritza laguntzailea___________ SILVIA LARRAURI

aholkularitza artistikoa________ SILVIA LARRAURI eta ITSASO ARANA

argiztapena__________________________ JOSÉ ANTONIO VILLEGAS

soinua________________________________________ ASIER RENTERIA

eszenografia eta jantziak______________________ PAOLA DE DIEGO

ikus-entzunezko materiala____________________ EKHI HONTECILLAS

kartela_________________________________________ LAURA RENAU

itzulpenak____________________________________ PERU AZPILLAGA

babesleak ______________________ EUSKO JAURLARITZA, BILBOKO UDALA, HARROBIA eta GARAION SORGINGUNEA





# _ITZIAR MANERO

Zuzenbidean Graduatua (Euskal Herriko Unibertsitatea), Giza Eskubideetan espezializatua (Maastricht University) eta Giza Eskubideetan, Demokrazian eta Globalizazioan Masterra (Universitat Oberta de Catalunya). Bere ikasketa eszenikoak Nave73 eta Central de Cine ikastegietan burutu zituen, Madrilen.

Antzerkian **La Tristura**, **El Pont Flotant**, **Sleepwalk Collective** eta **Grumelot** konpainiekin lan egin du aktore gisa. La Tristuraren *Future Lovers* eta El Pont Flotanten *Acampada*-rekin estatu mailan eta nazioarte mailan biratu du urteetan zehar.

Zineman *Las chicas están bien* (Itsaso Arana, 2023) eta *Las tierras del cielo* (Pablo García-Canga, 2023) pelikuletan ikusi ahal izango dugu laister. Telebistan Prime Video eta Mediaseten *Días mejores* (Alejo Flah, 2022) telesailean parte hartu du eta EITBren *Itxaso* (Antonio Díaz-Huerta, 2023) telesaila grabatu berri du.

Sorkuntza eszenikoari dagokionez, **Aves Migratorias** eta **Quemar las Naves** kolektibo eszenikoetan sorkuntza eta interpretazio lanak partekatu ditu. Horrela, aktore eta sortzaile bezala estreinatu ditu *El águila* eta *Éramos unos niños que escuchaban música en su cuarto* antzezlanak, Madrilen estreinatu eta estatu mailan biratu dutenak.

*MEMORIA* haren bakarkako lehen lana da.



# _INFORMAZIO PRAKTIKOA

Iraupena: 60 minutu.

Hizkuntzak: euskara, gaztelania.

Bertsioak: euskaraz edota gaztelaniaz.

Formatua: ertaina edota txikia.



# _ANTZEZLANAREN IBILBIDEA

MEMORIA Harrobia-Eskenaren ***Trantsizioak*** eta Bilboko Udalaren ***Artistak Egoitzan*** programetan hautatua izan da. Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzaren ***Produkzio Eszenikorako Dirulaguntzen*** onuraduna izan da baita ere.

2022ko urriaren 19an estreinatu zen Bilboko Udalaren ***BAD - Bilboko Antzerki eta Dantza Garaikidearen Jaialdian***.

22/10/19 Estreinaldia *BAD - Bilboko Antzerki eta Dantza Garaikidearen Jaialdia* (Bilbo)
23/04/12 *ADEL - Aulestiko Antzerki Topaketak* (Aulesti, Bizkaia)
23/06/01 *Festival Teatracciones* Espacio Tangente (Burgos)
23/10/13 Ikusgarri Aretoa (Lekeitio, Bizkaia)
23/10/15 *Emakume Sortzaileak Plazara* Garaion Sorgingunea (Ozaeta, Araba)
23/10/21-22 Pabellón 6 (Bilbo)
23/10/28-29 Teatro Victoria (Santa Cruz de Tenerife)
23/11/08 *Antzerki Aroa* en Escuela Navarra de Teatro (Iruñea)
23/11/10 *Muestra de Teatro Español de Autores Contemporáneos* (Alicante)
24/03/16 Centro Botín (Santander)
24/03/23 *Zurrunbilo jaialdia* Baratza Aretoa (Gasteiz)

…eta data gehiago konfirmatzeko

# _TEASERRAK ETA PROZESUARI BURUZKO BIDEOAK

(Bideoak ikusteko klikatu irudien gainean)










## _PUBLIKOAK ESANA

Agradable, generosa, interesante, tierna, emotiva, valiente, original...
Hay coherencia de principio a fin, es una reflexión muy personal que al ser compartida con el público, le invita y provoca a hacer la suya propia.

Zelako pasada. Pila bat gustatu zaigu, pila pila pila bat.
Amamak izugarrizko presentzia dauka lehenengo zatian, badirudi eszenatokian dagoela. Ta bigarren zatia, experimentalagoa, brutala. Benetan hitzik gabe.

Ibilbide eder eta hunkigarria, pixkanaka bihotza ukitzera heltzen dena

Me flipó! Sigo pensando en ella. Me hizo muy feliz ver un trabajo tan sensible y potente. Espero que salgan un montón de bolos y que se pueda ver muchas veces más.

Zorionak, oso landuta, ederra eta hunkigarria...
Esaldi batzuk literalki nire amamak esan zituen bezala.

Ikusi nuenarekin hiru hitz etortzen zaizkit burura: Gertukoa, Unibertsala, Poetikoa

KRISTON OBRA POLITA DELA USTE DUT.








6L












## _KONTAKTUA

ZELAKO KULTUR IDEIAK

kontratazioa@zelako.eus

zelako KULTUR IDEIAK

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO

HARROBIA ESKENA

garaion naturArtea